

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure zerbitzua eta produktuak bezeroengana helarazteko webgune bat sortuko dugu. Horretaz gain, sare sozialek gaur egun duten garrantziaz baliatuko gara. Esaterako, instagrameko kontu bat sortuz. Beraz, internet izango da bezeroekiko komunikabide nagusia. Bai webgunean eta bai sare sozialetan bezeroek beren kezka eta iradokizunak idatzi ahal izango dituzte eta gainera korreo elektroniko bat izango dugu bezeroek nahiago badute.



Hala ere, denda fisiko bat edukiko dugu produktuak zuzenki saltzeko eta bezeroekin zuzeneko harremana sustatu ahal izateko.



Produktuak saltzeko erabiliko dugun kanala webgunea eta denda fisikoa izango dira.

Produktuen banaketari dagokionez, denda fisikoan erosten dutenei zuzenean emango zaie eskatutako produktua eta online erosten duen jendeari posta bidez egingo zaie produktuen banaketa.



Bestalde, aktiboen salmenta ondoren, bezeroekin harremanetan jarraituko dugu. Izan ere, oso garrantzitsua iruditzen zaigu harreman hau sustatzen jarraitzea, bezeroak gure produktuak erosten jarrai dezaten. Aitzitik, gure produktuak hobetzen jarraitu ahal izango dugu beren iritziekin. Hau, webugearen eta sare sozialen bidez egingo dugu.

